

## ONLINE IKASTAROA 25 ORDU

# Maskulinitasunak

## Gizonak eta berdintasuna: Erronkak eta erresistentziak Iraupena

### Helburua

Ikastaro honek, ikasleek maskulinitasunaren eraikuntza soziala gure jendartean analizatzeko ahalmen teoriko zein praktikoak gara ditzatela lortzea bilatzen du. Hau guztia, berdintasun ikuspegitik, errealitatea genero-ikuspegiarekin analizatzeko ezaguerak lortuz, hala nola ulertzea baimentzen duten tresna metodologikoak.

Gure jendartean existitzen diren maskulinitasunaren espresio ezberdinak landuko dira eta emakume eta gizonentzako ekartzen dituen ondorioak. Aldi berean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aurrerapausoak, erresistentzia nagusiak eta sexistak diren diskurtso berriak analizatuko ditugu. Bortizkeria matxistari buruzko analisia, bere kausetan eta adierazpen ohikoenetan sakonduko dugu.



Ikastaroak 25 ordu iraungo ditu guztira, hilabetean banatuta horiek. Ikasgai bakoitzak zazpi eguneko iraupena izango du eta ikastaroaren bi edizio egingo dira. Izena ematean gizonen partaidetzari eta EAeko auzokideei edo atzerrian bizi diren euskal herritarrei emango zaie lehentasuna.

### Edukiak

Ikastaroa 4 gaietara osatzen da:

- 1- Sexu-genero sistema. Generoaren sozializazioa. Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunen gau egungo egoera.
- 2- Identitate maskulinoen eraikuntza. Sexismoaren ondorioak gizonengan: zainketa, arriskua...
- 3- Maskulinitateak eta bortizkeria matxista.
- 4- Gizonekin lan egitea maskulinitate hegemonikoak deseraikiz.

Ikastaroaren gai bakoitzak edukiko du:

- Gaiari sakontasunean ekiten dion dokumentu teorikoa.
- Dokumentazioa: unitate didaktiko guztiek edukiko dute beren zerrenda bibliografikoa, baita erreferentziazko gaietan sakondu ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren baliabide guztiak ere (bideoak, albisteak, webetako estekak eta abar).
- Foro parte-hartzailea: gai guztietan egongo dira iritzi-foroak... Foroan, fitxategiak eta dokumentuak partekatu ahalko dira.
- Testa: jaso diren ezagutzak baloratzeko asmoz, ezagutza-testa egin beharko da unitate didaktiko bakoitzaren amaieran, eta hurrengo unitatera igarotzeko betekizuna izango da.

## Ebaluazioa

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da:

- Gai bakoitzean material espezifikoak zein osagarriak irakurtzea.
- Gai bakoitzean proposatutako ebaluazio-testa egitea eta gainditzea.
- Ikastaroaren amaierako lan bat egitea eta gainditzea.
- Ikastaroa bukatzerakoan ziurtagiri egiaztatzaile bat igorriko da.

## Edizioak:

- 1. edizioa, euskaraz. Martxoaren 10tik apirilaren 13ra.  
[IZENA EMATEA](#) Otsailaren 7tik martxoaren 7ra.
- 1. edizioa, gaztelaniaz. Maiatzaren 5etik ekainaren 8ra.  
[IZENA EMATEA](#) Marxoaren 24tik apirilaren 27ra.
- 2. edizioa, euskaraz. Irailaren 15etik urriaren 19ra.  
[IZENA EMATEA](#) Uztailaren 7tik irailaren 7ra.
- 2. edizioa, gaztelaniaz. Irailaren 22tik urriaren 26ra.  
[IZENA EMATEA](#) Uztailaren 7tik irailaren 14ra.

